

AUTOGOBERNUA. Egoera aztertzeke goi mailako batzorde bat osatzeko eskaintza berritu du

PPk estatutua osatzeko borondatea izatea auzitan jarri du Jaurlaritzak

EA Erenak diren hainbat eskuduntza bere egin nahi izatea egotzi dio Espainiako Gobernuari

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Euskal Autonomia Erkidegoko autogobernua osorik bete eta horren ahalmen guztiak gartzea barik Espainiako Gobernuak «gizartea nahastea» helburu duela susmatzen du Eusko Jaurlaritzak. Gai horren inguruan Espainiako Gobernuak hainbat kidek eginiko irakurketa «interesatu eta okerre» erantzuteko asmoz, gobernu bileran onarturiko adierazpen bat kaleratu zuen atzo Jaurlaritzak, eta Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak ezagutarazi zuen.

Gernikako Estatutua osorik gartzeko ez duela inolako elkarriketa biderik bazterten ohar-tarazi zuen Jaurlaritzak. Egun dagoen zalantza nagusia, Zenarruzabeitiaren arabera, PPko gobernuak hori egiteko «borondatea duen edo ez» eta komunikabideen bidez «gauzak nahastentzeko» asmoa duen argitzea da. 1995ean Eusko Legebiltzarrak zehazturiko lehentasunei jaramonik egin nahi ez izatea leporatzen dio Jaurlaritzak PPri, «egutegiak aurkeztu eta irtenbidea geldiarazteko estrategia darabileneko».

Hala, duela urtebete Espainiako Gobernuari hainbat arlo eskualdatzeko proposamen zehatzak igorri zizkiotela gogoratu zuen Idoia Zenarruzabeitia, eta oraindik erantzunaren «zain» daudela nabarmendu zuen. Espainiako Gobernuak eskuduntzak banan-banan aztertzeke gutun bat igortzeko

I. ZENARRUZABEITIA

Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea

«Duela urtebete hainbat arlo eskualdatzea proposatu genion PPko gobernuari, eta oraindik erantzunaren zain gaude»

«Harreman normalizatua eta sakona eta eskaintzei erantzutea behar da, eta ez gutun politika bat»

azaldu duen asmoa, aldiz, ez dela «serioa» uste du Idoia Zenarruzabeitia. «Ez du balio gutun politika; harreman normalizatua, sakona eta proposamenei erantzuten diona behar da»

Negoiazio esparruei dago-kienez, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eginiko eskaintza berritu zuen Zenarruzabeitiak: Eusko Legebiltzarrean afera sakontasunez gartzeko eztabaidari ekitea eta Espainiako Gobernuarekin goi mailako batzordea eratzea. Hala ere, ohiko elkarriketa bideak ere «aktibo» izango dituela azpimarratu zuen Jaurlaritzak.

EA Eri dagozkion eskuduntzak berreskuratzeko saioa

Jaurlaritzaren aburuz, atzerapen autonomikoa jazotzen ari da, eta prozesua hiru arlotan egituratzen da. Lehenbizi, es-



DAVID AGUILAR / EFE

Jaurlaritzako lehendakariorde Idoia Zenarruzabeitia, atzo.

kualdatu gabeko eskuduntzen «ukazioan» datza atzerapena.

Horrez gain, PPk EA Eren eskuetan dauden hainbat arlo «murriztu» nahi dituela ziurtatu zuen. «Espainiako Gobernua leialtasunik gabeko politika egin ari da, euskal erakundeek eskuratutako eskuduntzak berreskuratzeko asmoz», Idoia Zenarruzabeitia esan zuenez.

Unibertsitatean, Heziketa profesionalean, Portuetan, Justizian, Nekazaritzan, Osasun arloan eta Aurrekontu politikarekin gertatzen ari dena horren adibidetzat jarri zituen.

Atzerapen autonomikoaren azken ezaugarria, berriz, estatutuaren «potentzialitatea» onartzeko Espainiako Gobernuaren «kontrako jarrera» da.

EA

Lizarra-Garaziren «metodologiak» oraindik balio duela dio EAK

Erredakzioa | DONOSTIA

Lizarra-Garaziren metodologiak oraindik balio duela adierazi zuen atzo EAK Lizarra-Garaziren aldarrikapenaren hirugarren urteurrena dela eta Batzorde Eragileak egin dako balorazioan.

«ETA izan zen Lizarra-Garaziko espirtua eta hitzak zapuztu zituen. ETA da, halaber, indarrean dauden printzipio horiek onartu eta desagertu behar duena», adierazi zuen ohar batean. PP, PSOE, UDF, RPR eta PSF alderdiek «erantzukizun eta jarrera demokratiko handiagoa azaldu behar dute euskal gizarteak hauteskundeetan erabakitzen duena onartzeko», gaineratu zuen EAK.

EAren aburuz, Lizarra-Garazi «oso urrats garrantzitsuak izan zen bakea eta normalizazio politikoa bilatzeko bidean». Hala ere, «aldarrikapenak euskal gizartearen sortu zituen ilusioa zeharo zapuztu» zirela gogoratu zuen.

Alderdi, sindikatu eta gizarte eragileei deia

Hirugarren urteurrenean, EAK dei egin zien indar politiko guztiei «alderdi bakoitzak bere proposamenak aurkez ditzan eta elkarriketa dialektikoaren ondorioz sintesi demokratiko bat lor dezagun». Sintesi demokratiko horri «euskal gizarteak eman behar dio onespina eta herriak erabakitzen duena errespetatu egin beharko da».

Dei hori ere sindikatu eta gizarte eragileei zuzendu zien EAK, «adostasun politikorako konpromisoa hartu eta sintesi demokratiko berri hau lortzeko eztabaida prozesua bideratzeko baldintzak sor ditzaten».

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan EAEko herritarrek «bakearen, elkarriketaren eta erantzukizun politikoaren aldeko apustua» egin zutela gogoratu zuen. Egun, Bata-suna Lizarra-Garaziren aurreko garaletara «itzul» dela eta PP eta PSOE gizartearen eskaeraren aurrean «entzungor» daudela erantsi zuen EAK.

Madrazok adierazi du EB-IU bertan egoteak «aniztasuna» emango diola Jaurlaritzari

Agentziak | GASTEIZ

Javier Madrazo IUko koordinatzaileak uste du bere alderdiaren presentziak «aniztasuna» emango diola Eusko Jaurlaritzari. Gainera, pentsatzen du abertzaleen eta abertzale ez diren artean elkarriketa prozesua bideratzeko balioko duela IU Jaurlaritzan egoteak. «Elkarriketarako beti izango gara prest», azaldu zuen atzo Radio Euskadi irratiari.

IUk sailburu bat izango du Jaurlaritzan, eta Etxebizitza Saila kudeatuko du. Sailburua zein izango den, haatik, ez du

erabaki oraindik Madrazoren alderdiak. Baliteke bera izatea, bere nahia beste bat izatea bada ere. «Alderdiaren esanetara nago. Nahiago dut beste norbait izatea, baina ez dut atxiki itxiko», adierazi zuen.

Ekainean negoziatu zuten EAJk eta EAK IUekin Jaurlaritzan sartzea, baina negoziazioak hautsi egin zituzten. Orain berriro ekin diote, eta oraingorain ematen du ez dela bestelako arazorik izango. «Kasu honek gehiago zehaztu ditugu diru partidak», justifikatu zuen Madrazok.

Jaurlaritzarako ituna izenpe-



MANUEL H. DE LEON / EFE
Javier Madrazo.

tu aurretik erreferenduma egin teko eskatu diote Madrazori alderdiko kritikoek. Arabako Kontseilu Politikoak eta gaitzetzeko kritikoek aldarrikapen hori egingo diote biharko Euskadiko Kontseilu Politikoan. Kritikoek uste dute IUk galdu egingo duela Jaurlaritzan sartzearekin, Jaurlaritzan «ezkerrera» eraman beharrean, EAJk eta EAK «erabakiak inposatu» dizkiotela IUri.

IUri lekua egiteko zenbait al-daketa egingo dira Jaurlaritzan. EAJk eta EAK aztertu dute egoera, eta espero dute laster ados jartzea. Litekeena da trukean EAK Urak eta Natur Baliabideak hartzea, Hirigintza eta Nekazaritza Sailetatik hurrenez hurren.